

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Open Data Navarra webguneak farmazia sareari eta guardiako txandei buruzko informazioa jasotzen du dagoeneko

Foru Gobernua webaren edukiak finkatzeko egiten ari den inkestan gehien eskatutako informazioetako bat da

Martes, 26 de abril de 2011

Nafarroako Gobernuaren
Open Data webguneak

[Foru Komunitateko farmazia sareari eta farmazia horien guardiako txandei](#) buruzko informazioa ere jasotzen du hainbat euskarritan, edozein herritarrak kontsulta arrunta egin

dezan edo datu horietaz baliatuz zerbitzu edo aplikazio informatikoak garatu nahi dituzten erakundeek erabil ditzaten.

Farmaziei eta oro har, osasunari buruzko informazioa da

[Foru Gobernua webgunearen edukiak finkatzeko egiten ari den inkestan](#) gehien eskatuetakoa bat. Webgunea martxoan abian jarri zuen. Horrela, estatu, autonomia eta tokiko gobernuetarako bideratutako nazioarteko ekimenean parte hartu du, partikularrek eta enpresek informazio hiri berrerabiltzeko, banatzeko edo eduki hauetan oinarrituz beste tresna, produktu eta zerbitzu batzuk sortzeko aukera izan dezaten.

Farmaziei buruzko informazioa

[CSV, XML, XLS eta JSON euskarrietan eskura daiteke](#), datu horiek ikusteko hainbat aukera emateko eta tratatzeko. Foru Komunitateko farmazia sareari buruzko fitxetan, datu hauek jasotzen dira: farmazia bakoitza zein osasun-eremura atxikita dagoen, herria, farmaziaren kodea, helbidea eta titularra. Bestalde, guardiako farmazien atalean, beste datu hauek agertzen dira, aipatutako lau formatuetan: datak, guardiako ordutegiak, herria, helbidea, farmaziaren titularra eta telefona.



Open Data Navarra ataria

Webgune honetan ikus daitekeen informazioaz baliatzea sustatzeko,

[Foru Gobernuak Open Data Navarra sariak sortu ditu](#), Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako IKT Enpresen Elkartearen (ATANA) laguntzaz. Sari horien xedea da zerbitzuak eta tresnak sustatzeko web horren datuak erabiltzen dituzten berriazko proiektuak saritzeko. Beste komunitate eta herrialdeen esperientziaren arabera, sakelako telefonoetarako aplikazioak edo aplikazio informatiko txikiak (*widget* eta *portlet* ak) dira gehien erabiltzen direnak.

Open Data Navarra sarietarako deialdiak bi modalitate ditu: batetik, enpresa teknologikoetarako; bestetik, unibertsitateko ikasleentzat. Proiektuak 2011ko ekainaren 1 aurretik aurkeztu beharko dira.